

**PHILOTEA DANTZARI ETA FRAI BARTOLOME
EUSKARALARI: OHAR LABURRA**

Studia etymologica et philologica de lingua et littera euskara

Frai Bartolomeren testugintza aztertzen duen edonork erraz antzematen du, pasarterik gotorrenetan bada ere, hark testu klasikoak euskaratzeko erakutsi zuen lerrakera. Sasoiari sasoi-ko autoreak miatu eta zatirik zati, fraide karmeldarrak eskaintzen daki hainbat idazleren testuak euskara jatorrenean.

Espiritualitatearen eskuliburuak aldarte baliotsuak ditu ekimen horretan. Esan legez, liburuon aipamenak edonon egiten ditu etxebarritarrek, eta baita eskuonez ere erabili, luze-zabal azaltzen dituen ideien euskarri eta urgazle.

Ezaguna da Frai Bartolomek dantza eta antzekoei zien gorroto eta gaitziritzia. Ezin irtenago haien aurkako testuak, *Euscal-errijetaco olgueeta, ta dantzeen neurrizco-gatz-ozpinduba*¹ liburu sonatuan artoski emanak.

Liburu horretan, behin eta berriro, Frai Bartolome dugu zirikalarri, ahalak eta leherrak gogoz egiten, dantza kontuei astinaldi ederrak emateko eta kristau zintzoak bide zuzenetik joan daitezen aholkuak plazaratzeko.

¹ AITA FRAI BARTOLOME: *Euscal-Errijetaco olgueeta, ta dantzeen neurrizco-gatz-ozpinduba*, Joaquín Domingo Nausijaren, eta Gaztiaren Liburuguillaan, Iruñea, 1816.

Haren idurian, edozelan ere, irristakorra *Philotearen* bidea. Nor dugu *Philotea*? San Frantses Saleskoak XVII. mendean idatzi eta liburu horrek sekulako arrakasta eskuratu zuen, zalantzarik gabe, kristautasunaren esparruan. *Kempis* eta abarrekoen pareko, *Philotea* اندrazkoaren gorabeherak ezagunak izan zaizkie europar kristauei, azken hirurehun urteotan bederen.

Andrazko horren nondik-norakoak ageriko dira: ezkondua, senarduna eta ume batzuen ama. Etsitua, ez du egunerokotasun astunean ikusten kristau bati dagokion bizimodu zuzena eramateko abagunerik. Haren zuzentzaileak, ostera, baietz diotso eta garau-garauz erakusten dizkio, kapituluka, hainbat egoeren alde onak eta eskasak.

Hamaikatxo itzulpen izan ditu liburu horrek, Europako hizkuntza nagusi zein txikietan. Datu batzuen arabera, 1609. urtean argitaratu eta 1656. urterako hamazazpi hizkuntza ziren *Philotearen* adierazle². Laster iritsi zen, bide beretik ere, *Philotearen* euskaratze lana.

Daranatz ikerleak³ lehena aipatzen du, Euskal Herriko Iparraldean egina, hain zuzen ere, Silvain Pouvreau euskaldun berriaren meneko⁴. Goiztiarra, beraz, horren jarduna. Labetik harakoa, zalantzarik gabe.

Harrezkerokoak ere ikusi ditu liburu horrek euskararen baitan. Joanes Haranederrek 1749. urtean ekin zion, beste behin ere, *Philotearen* euskaratze beharrari⁵. Pouvreauren lana oinarri hartu eta haren zuzenketa ondu zuen Donibaneko apezak.

² VIGIERA FRANCO, V.: *San Francisco de Sales*, Arcaduz, Ediciones Palabra, Madril, 1990, 166-167. orr.

³ DARANATZ, J.B.: *Curiosités du Pays Basque*, Librairie Lasserre, Baiona, I. liburukia, 1927, 233. or.

⁴ POUVREAU, S.: *San Frances de Sales Genevaco Ipizpicuaren Philothea eta Chapeletaren Andre Dana Mariaren oboretan deuotionerequin erraiteco Antzea*, chez Claude Audinet, rue des Amandiers, à la Verité Royale, devant les Graffins, MDCLXIV.

⁵ SALES, F.: *Philotea edo deboctioneraco bide erakusçaillea*, M. Yoanes de Haranederrek itzulia, Libouru egilearen baitan Pirouliceraco carrican, Tolosa, 1749.

Hemeretzigarren mendeko argiek erruz eta ugari erakutsi zituzten *Philotearen* izpiak. Horretara, 1853. urtean izan zuen *Philoteak* moldiztegiaren ukitua, Haranederren testutik abiatuta. Horri ere Daranatzek gehitu egiten dio Perrin izenekoak 1827. urterako aipatzen duen argitalpena⁶.

Euskal Herriko Hegoaldean, ostera, Frai José Cruz Echeberriak euskaratu eta jarraikako argitalpenak izan zituen liburu horrek 1821, 1824, 1852, 1861, 1863, 1868 eta 1885. urteetan. Daranatzek esanikoari jarraiki, esan daiteke azken argitalpen horren erantzukizuna, zuzenketei dagokienez behinik behin, Azpeitiako Murguiondo abadeak izan zuela⁷.

Idazle andana horren barruan, alderdi txiki eta apal batean, ia bazterrean, Frai Bartolome bizkaitarra dugu. Gure fraideak *Philotea* erabili zuen, beste gauza askorekin batera, dantzak kristaudentzat zein arriskugarri eta pekatugai diren erakusteko.

Frai Bartolomek gaztelerazko testua izan zuen gidari horretarako. Jatorriz frantsesez zegoena, aspalditik zuen gazteleratuta, autore batzuen eskutik. Berorien artean eta ez motzena, Francisco de Quevedo gaztelerazko idazle klasikoa⁸. Bestelakoen artean, bi nagusi: bata, Francisco de Cubillas, aurreratxoagokoa (1663. urtean); bestea, geroagokoa, Pedro de Silva, 1793. urterako here lana mamitu zuena.

Esku-eskura izan ditugu hiru bertsiok, hirurok izan baitaitezke gure etxebarritarren gogo eragileak⁹.

⁶ DARANATZ, J.B.: *Curiosités du Pays Basque*, Librairie Lasserre, Baiona, I. liburukia, 1927, 237. or.

⁷ DARANATZ, J.B.: *Curiosités du Pays Basque*, Librairie Lasserre, Baiona, I. liburukia, 1927, 237. or.

⁸ SALES, F.: *Introducción a la vida devota*, Don Francisco de Quevedo Villegasek itzulia, Biblioteca de Autores Cristianos, BAC popular, Madril, 1991, 217. or.

⁹ SALES, F.: *Introducción a la vida devota*, Don Francisco de Cubillas Donyaguek itzulia, Madril, 1765.

SALES, F.: *Introducción a la vida devota*, D. Pedro de Silvak itzulia, Librería religiosa, Bartzelona, 1856.

Frai Bartolomenen liburua irakurriz gero, 161. orrialdean datorrigu *Philotearen* autua. Izan ere, dantzaren aurkako frogak direla eta, ekin ahalean dabil etxebarritarra, inoiz inork kontrakorik atera ez diezaion. Hortaz, xehe-xehe egiten ditu dantzazaleen argumentuak eta horien guztien aurrean zirtolari garaile jarri bere burua. Orrialde horretan, fraide karmeldarrak oinohar baten bidez garamatza jatorriz erabili zuen liburura, honetara emanda: (1) *Introd á la vida dev. p.3. C.32.*

Bistakoa denez, *Philotearen* hirugarren zatian dabil, 33. kapitulu. Hala ere, testu horrek ez digu ematen autorearen aztarnarik. Arrastoak bilatu behar eta, hasteko, bi kontu alderatu behar, erkaketa zeregin horietan. Batetik, Silvak eta Cubillasek kapitulu berberari XXXIII. zenbakia ezartzen diote. Ildo bereetik, *Philotearen* jatorrizko testu frantsesa, Haranederren itzulpena eta Echeberriarena. Kontrara, Quevedoren testua, horrek bat egiten baitu Frai Bartolomenen zenbaketarekin.

Bestetik ere, delako kapitulu horren barruan, autore eta testu guztiek, Cubillasek izan ezik, jatorrizko bost atal ematen dituzte gazteleraz zein euskaraz.

Badago, hirugarrenez ere, zeresan franko euskararen aldetik *Philotearen* testutxo horretan. Aukera ezin aproposagoa izan dezakegu gure mende, jatorrizko testu frantses baten euskal eta gaztelerazko bertsioak alderatu eta batera ikertzeko, ehun urteren buruan, eta testu berberaren gainean, euskalki desberdinetan ondutako irakurketak buruz buru jartzeko.

Gogoratu, besterik ez bada, orain arte aipatu ditugunak: jatorrizko testua frantsescz, gazterelerazko hiru testuak, gehi bizkaieraz, gipuzkeraz eta lapurteraz asmaturikoak.

Ikus ditzagun, modu bateratuan eta bateratzailean, testuok:

Frantsesez¹⁰

Si par quelque occasion, de laquelle vous ne puissiez pas vous bien excuser, il faut aller au bal, prenez garde que vostre danse soit bien apprestée. Mais comme faut-il qu'elle soit accommodée? de modestie, de dignité et de bonne intention. Mangez-en peu, et peu souvent

Dancez peu, et peu souvent, Philotée; car faisant autrement vous vous mettez en danger de vous y affectionner.

Les champignons, selon Pline, estant spongiex et poreux, comme ils sont, attirent aysement toute l'infection qui leur est autour: si que estant pres des serpents, ils en reçoivent le venin: les bals, les danses, et telles assemblées tenebreuses attirent ordinairement les vices et pechez qui regnent en un lieu; les querelles, les envies, les moqueries, les folles amours. Et comme ces exercices ouvrent les pores du corps de ceux qui les font, aussi ouvrent-ils les pores du cœur. Au moyen de quoy, si quelque serpent sur ce-

Haraneder¹¹

Orobat, ecin guibela çaitzekembeit ocasionez, balara goan behar baduçu, goardia emaçuçure dantza içan dadin ongui aphaindua: eta ordean nola aphaindua? Modestiaz, moderacioneaz eta chede onaz.

Dantza çaitte ahalik gutiena, Philotea; beldurtez çure bihotzari lakhet dakion horlako gauzetan.

Honyoac eta gorringoac, Plinedioena, esponya beçala içanez, erreçki edozkitzen dute eta hurrupatzen bere inguruetaco aire gaichtoa; eta sugueric aldean badute, orobat hartzen dute haren poçoiña ere. Gauça bera; balec, dantzec eta bertze gauzco bildumec ere bereganatzen ohi dituzte herri batetan erreguiatzea duten bicioac eta bekhatuac, liscarrac, inbidiaç, escarnioac, eta amodio liçun eta erhoac. Eta nola dantzant haritzeac, gorphutzeko senxuac beçala, bihotzeco sentimenduac ere higuitzen baititu eta ideki-

¹⁰ SALES, F.: *Oeuvres complètes*, Perisse Frères, Imprimeurs-libraires, Paris, I. liburukia, 1861, 617-618. orr.

¹¹ SALES, F.: *Philotea edo debocioneraco bide eracusaillea*, M. Yoanes de Haranederrek itzulia, Andre Lamaignère alhargunaren inprimerian, Baiona, 1853, 341-344 orr.

la vient souffler aux oreilles quelque parole lascive, quelque muguetterie, quelque cajolerie; ou que quelque basilic viennent jeter des regards impudiques, des œillades d'amour, les cœurs sont fort aisez à se laisser saisir et empoisonner.

Mais quelles considérations?

1. A mesme temps que vous estiez au bal, plusieurs asmes brusloient au feu d'enfer pour les pechez commis à la danse, ou à cause de la danse.

2. Plusieurs religieux et gens de devotion estoient à mesme heure devant Dieu, chantoient ses louanges et contemploient sa bbeauté. O que leur temps a esté bien plus heureusement employé que le vostre!

3. Tandis que vous a vez dansé, plusieurs ames sont decedées en grande angoisee, mille milliers d'hommes et femmes ont souffert des grands travaux en leurs lits dans les hospitaux et ès ruës, la goutte, la gravelle, la fievre ardente. Hélas! ils n'ont eu nul repos: aurez-vous point de compassion d'eux? Et pensez-vous point qu'un jour vous gemirez comme eux, tandis que

tzen; bide hortaz cembeit sugue heldu bada cembeit hitz liçun, cembeit balacu beharrietara aurthikitsera, bihotzac paratuac edireten dire hekien poçoina barnera hartzeco.

Ordean ceñiñ dire conxideracione hec?

1. Orhoit çaitte, çu balan çinen eta dantzari hari cinen dembora hartan berean, haiñitz arima erretzen hari çirela ifernuco suan, eta, behar bada, dantzari edo dantzaren ariaz eguinicaco bekhatuen gatic.

2. Haiñitz fraide eta presuma debocionexu Yaincoaren aintziñean çaudecela ordu hartan berean, haren laudorioen cantatzen eta haren edertasunaren contemplatzen. Ala heñec bere dembora dohaxukiago emplegatu baitute çuc çurea baiño.

3. Çu dantzari çinen demboran, asco arima goan bide dire mundutic, asco miseria eta oiñhace pairaturic: milla million guiçon eta emazteki içan dire orduan bere etchetan, hospitalean, eta carriketan nekhe handiac, doloreac eta sofricariric miñenac pairatu dituztenac. Helas! ez dute içan sosegu garabic; eta çuc ez duçu uste egun batez çu ere egonen çarela hec beçala dola-

d'autres danseront comme vous avez fait?

4. Nostre-Seigneur, Nostre-Dame, les anges et les Saints vous ont veue au bal: ah! que vous leur avez fait grande pitié, voyant vostre cœur amuse à une si grande niaiserie, et attentif à cette fadaise.

5. Helas! tandis que vous estiez-là, le temps s'est passé, la mort s'est approché; voyez qu'elle se moque de vous, et qu'elle vous appelle à sa danse en laquelle les gemissemens de vos proches serviront de violon, et où vous ne ferez qu'un seul passage de la vie à la mort: cette danse est le vray passe-temps des mortels, puis qu'on y passe en un moment, du temps à l'éternité, ou des biens, ou des peines. Je vous remarque ces petites considerations, mais Dieu vous en suggerera bien d'autres à mesme effet, si vous avez sa crainte.

menez haxberapenez, bertzeac dantzan harico diren demboran, çu hari çan çaren beçala?

4. Gure Salbatzaille dibinoac, Andredena Mariac eta Sainduac ikhusi-çaituzte balan. Ah! ala çuc damu handia eguin-baitioçute, gogoz eta bihotzez tricatzeaz eta egoteaz horiaco dosteta bano eta ez deusetaco batetan.

5. Helas! han cinabiltzan orduan, dembora goan da; herioa hurbildu da. Emoçu gogoari çutaz trufatzen dela, eta bere dantzara deitzen çaituela; ceifietan çure hurcoen auhenac cerbitzatuco baitire chirribicatzat; eta ceifietan pausu bat baicen ez baituçu eguinen, eta hura, bicitze huntaric heriotzera. Dantza hau deithu behar da guiçonaren eguiazco pasa-dembora; ceren, instant batez, demboratic eternitatera, demboraco onctaric edo gaitzetic, bethierecotara eguiten dugun iragaitza, hori baita. Horra nic eman ahal dietzaketchudan abisuac gauça horren gainean: baiñan Yaincoac gogoratuco-darotçu bertze asco hoberic ere, baldin haren beldurtasuna gogoan badakharkeçu.

Silva
(gaztelaniaz)¹²

Las danzas y bailes son cosas indiferentes por su naturaleza; pero, segun el modo ordinario con que se ejecutan, están muy ladeadas é inclinadas hácia la parte del mal, y por consiguiente llenas de riesgo y peligro.

... todos en el baile ostentan á competencia vanidad, y como esta es la disposicion mas oportuna para aficiones malas y amores reprehensibles y peligrosos, fácilmente se engendra todo esto en los bailes.

... los bailes, danzas y semejantes

Frai Bartolome
(bizkaieraz)¹³

Dantzán eguitia berz pecatu ezdala... Dantzari onenac bere utsa balijo daveela... Eguiten dirian moduban, gauza charren, ta pecabaren entero urrecuac diriala; ta orregaiti arriscu, ta peligru andicuaac diriala...

Dantzara duazanac alcarren propijan vanidadez duazala. Vanidade atati urteten davcela maitequerija charrac, ta peligruzco carinuaac.

Basoco suga, ta pristija venenotsu-

Echeberria
(gipuzkeraz)¹⁴

Danzac beréz ez onac, ta ez gaiztoac dira, baña gueyenian eguiten diran moduan gaiteera chit arrimatuac dira, ta orregatic beragatic chit peligrusoac.

Danzac, ta beste onelaco junta peligrusoac berengantacen dituzte gueyenian errian diran vicioac.

Sortcen dira orregatic aserriac, envi-

Cubillas
(gaztelaniaz)¹⁵

Las danzas, y bayles fon indiferentes de su naturaleza; pero fegun el modo ordinario, con que fe hace este egercicio, es muy inclinado à la parte del mal; y por configuiente lleno de riefgo, y peligro.

Llevan todos à los bayles vanidad à porfia; y la vanidad es tan grande difpoficion à los malos afectos, y à los amores peligrifos, los malos afectos, y à los amores peligrifos, y detestables, que con facilidad fe engendra en las danzas todo esto.

Las bayles, las danzas, y feme-

¹² SALES, F.: *Introduccion à la vida devota*, D. Pedro de Silvák itzulia, Librería religiosa, Bartzelona, 1856, 324-327. orr.

¹³ AITA FRAI BARTOLOME: *Euscal-Errijetaco oiguetta, ta dantzéen neurrizko-gatz-ozpinduba*, Joaquín Domingo Nausijaren, eta Gaztiaren Liburuguillaan, Iruñea, 1816, 160-164. orr.

¹⁴ SALES, F.: *Debociozco bicitzaraco sarrera*, Aita Fray José Cruz Echeberriak itzulia, Francisco Muguerzaren moldizteguián, Tolosa, 1821, 419-423. orr.

¹⁵ SALES, F.: *Introducción a la vida devota*, D. Francisco de Cubillas Donyaguek itzulia, Madril, 1765, 267-260. orr.

concurrencias tenebrosas atraen ordinariamente los vicios y pecados que reinan en el lugar, las quejas, las envidias, las mofas y los necios amores; y así como este ejercicio de la danza abre los poros del cuerpo, así también abre los poros del corazón; por lo cual si alguna serpiente llega á inspirar al oído palabras lascivas, requiebros, lisonjas, ó si algun basilisco se acerca á echar miradas impuras y ojeadas amorosas, los corazones están sumamente dispuestos para dejarse contaminar y emponzoñar.

... pues ¿con qué se ha de sazonar? con modestia, seriedad y buena intención... baila poco y no muy á menudo, Filotea; porque si no te expones á cobrar afición al baile

bac oinduari verenua ezarten deutseen leguez; dantzarijac albocuari belaarrijan esaten deutzazan verba desonestubac, vequiracune maitiac, ta escucaloijac, sartuten deutseela vijotzian pecatubaren verenua. ¿Noc ezdaqui, orduban vijotza prestauta daguana, pecatuban jausteco, pecatubari obeidute-co, ta verenuagaz ilteco?

Dantzari eguizubada guichi, ta guichitan, Philotea... ta orduban ondo prestauta. ¿Baña celan prestauta? Modestijaz, juicijoz, ta intencioe onagaz.

diac, burlac, ta amore eroac, ta nola iriquitcen dituzten diversio oriee dantzatcen diranen gorputceco zulo chiqui, chiquiac, ta ecñ icusi diranac, ala ere viotzarenac iriquitcen dituzte, ta ala sugastarraren antecoren baten esaten badu itz ci-quiñen bat, edo engañagariren bat, edo beste erqueriren bat, edo ersugue, edo basiliscoaren antecoren batec beguiratce cariñosoren bat eguiten badie, chit prestau de viotzac pozoitceco, bear ez dan gauzan consentiteco.

¿Baña nola izango dá au esango dezu? Erantzuten dituz, modestiarequin, errespetoarequin, ta intencio onarequin dantzatu bear dezula.

jantes juntas tenebrosas, atraen ordinariamente los vicios, y pecados, que reinan en un lugar: las pendeñcias, las embidias, las burlas, los locos amores; y como eftos egercicios abren los poros del cuerpo de los que los ufan, afsi abren los poros del corazón. Por lo qual, si alguna ferpiente llega á fsoplar á las orejas alguna palabra lafciva, alguna terneza engañofo, o algun requiebro vano; ó si algun basilisco arroja deshonestas miraduras, y ojeadas amorosas, los corazones estan muy aparejados á dejarfe affaltar, y emponzoñar.

Danza poco, y pocas veces, Philotea, porque de otra fsuerte corres peligro de aficionarte á esta vanidad. ¿Pero como ha de fer esto? Preguntarás. Refpondo: Que con modestia, digni-

¿Y cuáles son estas consideraciones?

1. Mientras tú estás en el baile, muchas almas están ardiendo en el fuego del infierno por pecados cometidos en el baile ó por causa del baile.

2. Muchos religiosos y personas devotas están en aquella hora en presencia de Dios cantando sus alabanzas, y contemplando su hermosura: ¡cuánto mejor que tú emplean el tiempo!

3. Mientras tú has estado bailando, han muerto muchos entre graves congojas: muchos millares de hombres y mujeres han estado padeciendo gravísimos trabajos en sus camas, en los hospitales y en las ca-

¿Baina Cer pensau? Ara beraren verbaac:

Pensau eguizu leleengo: Zu dantzazan cebizan artian, ceimbat arima impernuban erreetan egongo cirian, dantzaz, ta dantzia zala medijó eguin zituben pecatubac gaiti.

Pensau eguizu bigarrenian: Ceimbat Praile, ta cristinau on egozan orduban Jaungoicua alaveetan. ¡Oh, ce obeto eguin daven areec, zuc baino!

Pensau eguizu irugarrenian: Zuc dantzaz eguin dozun artian, ceimbat illda beste mundura juan dirian. Ceimbat ospitaleetan padeciduten egon dirian... ¡Ah, tristia! ¿Ez zara erruquituten areequin? ¿Deri-

Baña cer consideracio? Ara bertan.

Considera zazu lembici, zu dantzaz cembiltzan demboran asco anima ceudela infernuan penatcen diversio orietan eguin cituzten pecatuac gatic, edo oriec cirala motivo eguin cituztenac gatic.

Considera zazu bigarren, zu dantzaz cembiltzan demboran nola asco Religioso, ta Religiosa, ta persona devoto Jangoicua alabatcen, ta arentasuna consideratcen ceuden. O cembat, zuc baño, obetoago demhora empleatcen zuten!

Considera zazu irugarren, nola zu dantzaz cembiltzan demboran asco anima congoja andiaquin mundu onetatic atera ciran; nola orduan bertan padecitcen cituzten eciñ conta ala trabaju, ta eritasun andiac, ba-

dad, y buena intencion.

¿Pero qué consideraciones? Eftas.

1. Al mismo tiempo que tu estabas en los bayles, muchas almas ardián en el fuego del infierno, por pecados cometidos en semejantes fiestas, ó por causa de ellas.

2. Muchos Religiosos, y gente de Devocion estaban à la misma hora delante de Dios, cantando sus alabanzas, y contemplando su hermosura. ¡O, quanto mejor, y mas dichosamente fue empleado fu tiempo, que el tuyo!

3. Mientras tu danzabas, muchas almas se despidieron de esta vida con mucha congoja: millares de hombres, y mugeres padecieron grandes trabajos, y enfermedades en sus camas, en los Hospitales, y por

lles, dolores de gota, de piedra y ardientes calenturas; y es posible, que estando estos sin hallar descanso, no tengas tú compasión de ellos? ¿no consideras que vendrá día en que tú gimas como ellos, mientras otros bailen, como tú lo has hecho?

chazu, ezdozula negar eguingo, ataec leguez, egunen baten beste batzuec dantzan dabilztanian?

tzuec beren echean, besteac hospitalean, ichasoan, eta lecu ascotan; batzuec gota, bestiac sayetseco miña, ta onela asco pena genero bate ren descansuric gabe. Erruqui zaitetz, ta pensa zazu zu ere bear bada egunen batian beste aimbeste padecitcen egongo ceral, zu oraiñ bezala bestiac dantzaten dabilztan demboran.

las calles: la gota, la piedra, recias calenturas, fin haver tenido algun repofio. Ten tu compafsion de ellos, y piensa, que algun dia gemirás afsi, mientras otros danzan como tu.

4. Nuestro Señor, Nuestra Señora, los Angeles y los Santos te han estado viendo en el baile, y se han dolido mucho de ti, viendo tu corazón divertido en tales niñerías y ocupado en tal necesidad.

Pensau eguizu laugarrenian: Jesusec, Ama virginiac, Ainguerubac, ta Santubac icusi zaitubeela, dantzau. Duda bagaric lastima izan deutsu-bee, icusita zure vijotza ain gogoz, ta zur alaco zoraquerijan, ta tontaquerijan.

Considera zazu laugarren nola Jesusec, Ama Virginiac, ta Aingueru Santuac dantzan icusi zaituzten, ¡O ceñ erruqui ciñuzten zure viotza eroqueri ayequin an bat eguiña icusita!

5. ¡Ay, que mientras tú estabas en el baile, se ha pasado el tiempo, y la muerte se ha acercado! mira como se burla de ti, y te convida á su baile, en el cual los gemidos de tus

Pensau eguizu bostgarrenian: ¡Al nire tristia! Dantzau ibili nasaneco demporia juanjat. Erijotzia leen baino utrago daucat... Bere dantzara dei eguiten deust onec. Ordu-

Considera zazu bostgarren, nola zu an ceunden demboran, dembora igaro zan, ta bere danzara deitcen dizun, ceñian zure aideric urren negarrae izango dira zure bioli-

4. ¡Ay, que mientras tu estabas allí, se pasó el tiempo, y se acercó la muerte! Mira como se burla de ti, y te llama á su danza, en la qual los gemidos de tus mas cercanos fervirán

deudos servirán de violin, y tú en aquella danza harás un paso solo, pero de la vida á la muerte

co somuba izango da nire zuzpiruba. Ta orduco dantzia- ren azqueneco giria vitzizati eternidadera. Oneec imini deusudaz, pensau daizuzan.

ñac, ta ez dezu danza artan vici- tzatic eriotzara igarotcia beste mudanzaric eguingo.

de violòn, donde no haràs mas de una mudanza de la vida á la muerte. Efte bayle es el verdadero paffa- tiempo de los mortales, pues en èl paffan en un momento del tiempo à la eternidad, ò de bienes, ò de penas.

Te he indicado estab breves consideraciones; pero Dios te inspirará otras muchas para el mismo efecto, si vives en su temor santo.

Baina, (Jaungoi- cuaren vildurric badago zukan) berac ecarrico deusuz beste pensau- quizun batzuc ataraco.

Yo te señalo eftas pequeñas confide- raciones; pero Dios (fi tienes fu santo temor) te ofrecerà otras mu- chas al propofito.

Labur bilduta, honetara gauza daitezke orain artekoak:

1. Frai Bartolome askeago dabil bere itzultze lanean. Nolanahi ere, helburu berbera ez dute fraide karmeldarrak eta gainerakoek. Frai Bartolomek *Philotearen* zati bat hartzen du xedetzat, bertan azalduta dauden argumentuak hankaz gora jartzeko eta bere esparrura ekarrarazteko. Besteak, ordea, liburu osoaren itzultze lanean dabilta. Horretan ibilita, jakina, li- buru osoaren itzultzaileek bestelako lotura eta estekadura era- kusten dute euren langintzan.

Edozelan ere, nabarmen da Frai Bartolomek aukeratu dituen zatiotan itzultzeko grazia eta piperra ez zaizkio falta. Gatza ere baduela esateak, ez ginduke apartera eramango, gure etxeba- ritarrak, lehen esan legez, duen helburua izanda.

Nonbaitetik azaltzekotan, Frai Bartolome Silvaren erderatze lanetik abiatu zela atzeman daiteke. Horretarako argumentuak, batez ere, Cubillasen testuan falta diren eta Silvaren orrialdeetan dauden hitzen euskaratzea izango litzateke.

2. Frai Bartolome eta Echeberria, aldiaren ikuspegitik hur-burrekoak izan eta antzeko dabilta gaztelerazko testuarekin. Sarritan gipuzkoarrak erdararen kutsu sakonagoa erakusten du. Bizkaitarrak, erderakadetan ibili bada ere, oho har ikusita, bestea baino erdararekiko morrontza txikiagoarekin diharduela dirudi.

Lexiko gorabeheretan aldarte beretsukoak direla igarri daiteke.

Joskeraren inguruan ere, Frai Bartolomek, laburrago jokatzen duelako edo, Echeberria baino bestera dabil. Adibidez, erdarazko *considera* hori euskaratzean, Frai Bartolomek *pentsatu*, Echeverriak, oster, *considera ezazu*.

Bada, azkenez ere, zeresana Haranederrek ondutako testuari buruz. Izan ere, Haranederrek frantses testuari estu-estutik jarraitzen dio. Horretara, dantza baino *bal* eta abarrekoak hobesten ditu maiz. Horrentzat ere, joskera ez iluna: *oroit çaitte* hango testuan, hegoaldeko *pentsatu* eta *considera zazu* direlako en ordainean.

Horra hor, bi hitzetan esanda, itzultze konparatu horretan euren burua sartu nahi dutenentzat jorragunea. Batetik, euskal itzultze lanean eta testu berberaren aurrean, oinarritzat zein testu hartu den azpimarratzea, hau da, hurbileko erdara, jatorrizko testua ezagutzeko modukoa izanagatik ere.

Horrek baldintzatzen du itzultze lanaren emaitza eta ondorioa eta era berean ere, euskara bera erdarari (gaztelerari zein frantsesari) egokitu beharra.

Bestetik ere, esan beharrik dago euskal itzulgintzaren maila desberdinak badirela. Premia jakin bati erantzun anitzak ematen zaizkie. Hala ere, itzulpen horretan nabaritzen da euskara

bera, erlijio munduan behinik behin, gaitua izan dela aldi horretarako (XVIII-XIX. mende hasiera). Atzean, nolana ere, ez dira tradizio bereak. Haranederrek Axular eta abarrekoak ditu aitzindari, Silvain Pouvreau barne, eta horrek badu eragina itzultze lanetan.

Echeberria eta Frai Bartolome, aldiz, euskara lehendabiziz kanpora azaltzen ari den horretan gauzatzen dute euren zeregina eta hala eta guztiz ere, maila polita erakusten dute euren eginkizun horretan.

3. Azkena ere ez ahanzteko modukoa izan daiteke, batik bat, euskalgintzan gutxi landu dena gogoratzeko. Izan ere, euskal autore klasikoek sarri-sarri erabili izan dituzten hainbat erreferentzia, autore aipamen eta itzulzatiak aintzat hartzekoak ditugu.

Egun, zorionez, ikusten hasiak gara halakoak. Edozein modutan ere, soka bereko ikuskizun gehiago badirela erraz somatzen da. Hamaikatxo harribitxi aurki ditzakegu halakoetan, gure aldiotako ezinesanak askatzeko lagungarri oso izan daitezkegunak.

Andres Urrutia